

HEZETASUNETIK SORTUTAKO ELEKTRIZITATEA

Posted on 21/07/2014 by Naider





Massachusettseko Teknologia Institutuak (MIT) aurkikuntza interesgarri bat aurkeztu zuen iaz, kondentsazioan ur-tantak ura uxatzen diren gainazaletatik urrunzen direnean elektrizitatez kargatu daitezkeela oinarritzat hartuta.

Aurkikuntza hau egin duen ikerketa-taldeak urrats bat gehiago egin du karga hori gailu elektronikoei energia hornitzeko erabil zitekeela frogatuz, hau da, aireko hezetasunak gure mugikorraren bateria kargatu dezakeela.

Lehenengo prototipoa eginda dago jada, tartekatuta dauden metalezko plaka eroale batzuk (kobrea, aluminioa...). Ikertzaileek kalkulatu dute, adibidez, zentimetro karratuko mikrowatt batekin, albo batean 50 zentimetro inguru neurtzen dituen kubo bat nahikoa izan daitekeela telefono mugikorra guztiz kargatzeko 12 ordu inguruko epean.

Hurrengo iraultza teknologiko, sozial eta ekonomikoaren aurrean al gaude? Garapen bidean dauden herrialdeek naturan oinarritutako energia-iturri merke bat eskuratzeko aukera izango dute horrela?

There are no comments yet.